

TESTU ULERGARRIEN BILA

OHARRA: *asteriskoz eta *kurtsibaz* idatzitakoak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

Udal idazki askotan esaldi luze ulergaitzak irakurri izan ditugu. Esaldi horiek ulerterrazago nola jarri ikusiko duzue hiru adibide hauetan: puntuazioaren bidez esaldiak moztu, ordena aldatu, hitz konkretuak erabili...

OHIKO AKATSAK ETA ZUZENKETAK

**Honen bidez, EAEko langilegoarentzako lan baldintzak finkatzen dituen Akordio Arautzailean aurreikusitako Gizarte Fondoaren laguntza-hartzailea izateko eskakizun hau dagokion Zuzendaritzan -Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritza- bidera dezazun eskatzera natorkizu.*

- a) Dakizunez, Gizarte Fondoak aurreikusten dira EAEko langileen lan baldintzak finkatzen dituen akordio arautzailean. Gizarte fondoaren laguntza jaso nahi dut, eta, horregatik, eskatzen dizut nire eskabidea Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritzan bideratzeko.
- b) Honen bidez bidaltzen dizut gizarte fondoaren laguntza jasotzeko eskabide hau, Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritzan bideratzeko dezazun. Dakizunez, gizarte fondo horiek EAEko langileen lan baldintzak finkatzen dituen akordio arautzailean aurreikusten dira.

**Sailak hiesaren aurkako plangintza bat eratu du, zeinak MOE-k eta Europako Biltzarrek emaniko gomendioetan oinarriturik, arrisku talde batzuen artean HIES-ek izaten duen maiztasuna gutxiagotuz gain, populazioenganako hedapenaren aurkako neurriak aldeztu aurretik hartzeko ere balio baitu.*

Sailak hiesaren aurkako plangintza bat eratu du, MOEk eta Europako Biltzarrek emandako gomendioetan oinarriturik. Horren bidez, aukera izango dugu, batetik, arrisku talde batzuetan hiesak duen maiztasuna gutxiagotzeko, eta bestetik, neurriak aldeztu aurretik hartzeko, populazioarengana heda ez dadin.

**Agindua, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena, martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuaren bidez (1993ko martxoaren 28ko EHAA) eta hori garatzeko 1993ko ekainaren 15ean emandako Aginduaren (1993ko uztailaren 3ko EHAA) eta 1993ko urriaren 11ko Aginduaren bidez (1993ko urriaren 20ko EHAA) araututako diru-laguntzak jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dituen.*

Agindua, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntza jakin batzuk jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dira. Diru-laguntza horiek jaso ahal izateko betebeharrak eta gainontzekoak honako xedapenek arautzen dituzte: martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuak (EHAA, 1993-03-28) eta dekretu hori garatzeko 1993ko ekainaren 15eko Aginduak (EHAA, 1993-07-03) eta 1993ko urriaren 11ko Aginduak (EHAA, 1993-10-20).